




Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

BILBAO HOBETZEN
MEJORANDO BILBAO

AGINTALDI
PLANA
2023-2027





AURKIBIDEA

AURKEZPENA

3

DAUKAGUN BILBO
ETA NAHI DUGUN BILBO
2023-2027 EKINTZA LEHENETSIK


4

LEHENTASUNEZKO 80 JARDUKETA
BILBO ERAIKITZEN JARRAITZEKO

10

JARRAIPENA, EBALUAZIOA
ETA KONTU EMATEA

45



AURKEZPENA



Dokumentu honetan daude jasota lehentasunezko zenbait jarduketa, EAJk eta PSEk osatzen duten Bilboko gobernu-taldeak datozen lau urteetarako egindako «Bilbao Hobetzen» aginte-plana osatzen dutenak.


Lehentasunezko jarduketa horiek guztiek helburu handi bat dute: Bilbo gero eta hiri kohesionatuagoa egitea, bizi-kalitate handikoa guztiontzat, auzo guztietara heltzen diren udal zerbitzuak dituen, eta erakargarria ekintzailtzarako eta kalitatezko enplegua sortzeko. Balio sendo eta partekatuak dituen hiri bat, konpromiso handikoa, eta Garapen Jasangarriko Helburuetarako ekarpena egiten duena. Guztiok amesten dugun Bilbo.

Bilboko Udalaren jarduna, noski, lehentasunezko 80 jarduketa horiek baino askoz urrunago doa. Egunez egun, udal-alor eta -erakunde guztiek zerbitzu ugari ematen dituzte Bilboko herritarren bizi-kalitatea hobetzeko eta gure udalerrriaren oparotasuna handitzeko. Zerbitzu publiko horietan, udal-langileak buru-belarri aritzen dira Bilboko herritarrek eskatutako mailan aritzeko. Hala eta guztiz ere, ulertzen dugu egokia dela lehentasunak ezartzea, eta proiektu-sorta bat nabarmentzea, herritarrek errazago egin dezaten udalaren jardura eta kudeatzaile publiko moduan datorren agintaldirako hartutako konpromisoak kontrolatzeko lana.

Zinez sinesten dugu gardentasunaren eta kontu ematearen printzipioetan. Horregatik, ahalegin berezia egin dugu konpromiso horiek ahalik eta gehien zehazteko eta edonorentzako moduko hizkera erabiltzeko. Horregatik, www.bilbao.eus webgunean eta aurrez aurreko beste bide batzuetan emango dugu plan hau osatzen duten lehentasunezko jarduketan aurrerakuntza-mailaren berri. Horrela, 17. GJH-ak (Aliantzak) erakusten digun moduan, Bilboko herritar oro izango da eragile nagusi gure udalerrriaren giza-garapen jasangarrian aurrera egiteko proiektu partekatu honetan.

JUAN MARI ABURTO. BILBOKO ALKATEA





DAUKAGUN BILBO ETA NAHI DUGUN BILBO.

2023-2027 EKINTZA LEHENETSIAK



DAUKAGUN BILBO. GURE INDARGUNEAK

Konpromisotzat hartu ditugun lehentasunezko jarduketa hauek gure hiriaren diagnosi errealista dute abiapuntu. Hiri honek, zalantzarik gabe, **aurrerapen ekonomiko, sozial eta ingurumeneko paregabea izan du azken hamarkadetan, eta indargune garrantzitsuak garatu ditu.**



Bilbok lortu du **eraldatzen den eta modernizatzen jarraitzen duen hiriaren eredu ezin hobea bihurtzea**. Erakarpen-elementu garrantzitsuak ditugu, eta, arlo publikoaren eta pribatuaren elkarlanean garatuz eta baliatuz, Bilbo aukeren hiri bilakatzen lagundu dezakete, eta, beraz, bilbotarrentzako bizi-kalitate handiagoa ekartzen ere bai.



Bilbok **gizarte zibil aberatsa du**. Elkarpeek, fundazioek eta irabazi asmorik gabeko bestelako erakundeek ahalbidetu egiten dute herritarrek hiriko bizitzan parte hartzea, eta Bilbo eraikitzean are gehiago murgildu behar dugun kapital sozial erraldoia osatzen dute.



Bilbok **enpresa-sare inportantea dauka**, nazioarteko erreferentziatzko zenbait enpresa biltzen dituena, besteak beste. Enpresa horiek kalitatezko enplegua eskaintzen dute, eta, gainera, berrikuntzara eta etengabeko hobekuntzara bideratuta daude, argi eta garbi.



Bilbo gai izan da **kalitatezko zerbitzu publikoen zorro zabal** bat osatzeko. Bilboko Udalak **esperientzia handia du, eta aitortua**, kudeaketan. Kudeaketa horren oinarria guztiontzako Bilbo hobea egiteko erronkarako prest dagoen eta horretan buru-belarri dabilen udal-antolakuntza da.



Geurezko kultura eta nortasuna dugu, eta gure gizartearentzako aberastasuntzat jotzen ditugu, eta babestu eta indartu nahi eta behar dugu.



Bilboko pertsonek, enpresek eta eragileek **balio partekatu sendoak ditugu**. Balio horiek funtsezkoak dira pertsonek eta jasangarritasuna gure politiken erdigunean jarriko duten **kontratu sozial berria** osatzeko.



BILBOREN ERRONKAK

Diagnosi horrek aurrera doan eta aurrera joaten jarraitzen duen hiri bat erakusten digu, baina **erronka handiak** ditu. Erronka horietako gehienak globalak dira, baina beste batzuek gure gizarteko gai espezifikoak dagozkie:



Erronka **ekonomikoa eta enpleguarena**, lan egiten jarraituko behar dugulako hiri erakargarria izateko negozio berrietan inbertitzean, eta ekonomiaren motor, aukera gehiago eta kalitatezko enplegua emateko.



Gazte gehiagok Bilbo aukeratzea beren bizi-proiektua eta proiektu profesionala garatzeko.




Gure **auzoak hobetzea**.



Jasangarritasunaren aldeko tokiko konpromisotik **munduko larrialdi klimatikoari** aurre egiten jarraitzea.



Batez, ere, egunero Bilbon ditugun **bizikidetzaren eta balio zibikoaren maila gorena** egunero mantentzeko erronka.




NAHI DUGUN BILBO. 2023-2027 EKINTZA LEHENETSIAK

Gure helburu handia da **Bilbo eraikitzen jarraitzea, pertsona guztientzat, auzo guztientzat, jarduera ekonomikoarentzat eta kalitatezko enpleguarentzat, segurtasunean, mugikortasunean, kulturean, etxebizitzan eta kalitatezko zerbitzu publikoetan eraginez.**

Helburu hori honako ekintza lehenetsi hauetan hezurramitzen da:

- **Bilbo**, pertsona guztientzat
- **Bilbo**, ekonomiaren eta kalitatezko enpleguaren motorra
- **Bilbo**, auzo guztiak hobetuz eta kohesionatuz
- **Bilbo**, 365 kultura eta nazioarteko ekitaldien egoitza
- **Bilbo** gaztea
- **Bilbo** euskalduna
- **Bilbo**, giza-garapen jasangarriaren eta balioen hiria
- **Bilbo** segurua
- **Bilbo**, hiri-eredu irisgarria eta mugikortasun jasangarria
- **Bilbo**, erakargarria, parte-hartzailea eta kalitatezko zerbitzuduna



GJH-EKIN LERROKATZEA ETA HAI EI EGINDAKO EKARPENA

«Bilbao Hobetzen» guztiz bat dator **Nazio Batuen 2030 Agendarekin** eta haren **Garapen Jasangarrirako Helburuekin**.


Izan ere, Bilbo beti izan da hiri irekia, solidarioa eta konpromiso handikoa. Hain zuzen, konpromisoa du garapen jasangarriarekin, eta horixe indartu nahi dugu datozen urteotan.

GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK



Jarduketa horien bidez, Bilbok lagundu egingo du Garapen Jasangarrirako Helburuak (*) erdiesten.


(*) Hasieran Nazio Batuek ezarritako 17 GJHez gain, 18. GJHa ere txertatuta dago (Hizkuntza eta Kultur Dibertsitatea), orain gutxi Trantsizio Sozialeko eta 2030 Agendako Eragile Anitzeko Euskadiko Foroak ezarritakoa.





BILBOKO BALIOEKIN LERROKATZEA ETA HAIEI EGINDAKO EKARPENA


Bilboko Balioen Agiriak **Bilboko 17 balio partekatu** biltzen ditu, gure nortasun-zeinua direnak, eta garatzen eta indartzen jarraitu behar dugu, biztanleek, instituzioek, enpresek eta erakundeek nahi dugun Bilbo lortu ahal izateko jardun eta jokatu beharreko modua osatzen baitute.

«Bilbao Hobetzen» funtsezko tresna izango da **balio horiek aplikatzen eta garatzen** jarraitzeko.



BILBAO BALIOEN HIRIA







LEHENTASUNEZKO 80 JARDUKETA BILBO ERAIKITZEN JARRAITZEKO



Bilbo eraikitzen jarraitzeko lehentasunezko 80 jarduketa horiek 10 jarduketa-ildotan daude antolatuta:



(*) Agintaldiko plan honetan jarduketa batzuk beste ardatz batzuetan sartu badira ere, eragin eta onura zuzena ekarriko dute Bilboko auzoen hobekuntzan eta orekan.



1- JARDUERA EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA



ZEIN GJH-RI EGITEN DIO EKARPENA?



ZEIN BALIO INDARTZEN DITU?


Ahalegina

Sormena

Ilusioa

JARDUKETAK

- 1.1- «BAT, Ekintzailtzako Nazioarteko Zentroa», II. fasea
- 1.2- «Talent House (Talentuaren Etxea)» sortzea
- 1.3- Partzela berriak garatzea Zorrotzaurreko Hiri Parke Teknologikoan
- 1.4- Ikus-entzunezkoen polo berria Zorrotzako Muturrean
- 1.5- Enplegu-planak eta -programak
- 1.6- Ekintzaileentzako laguntza osoa
- 1.7- «Merkataritza Plan Estrategikoa»
- 1.8- «Udal Merkatuen Plan Estrategikoa»
- 1.9- «Bilbao-Bizkaia 2030 Turismo Estrategia»
- 1.10- Nazioarteko ekitaldiak erakartzea eta antolatzea



1- JARDUERA EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA

JARUKETA	JARUKETAREN DESKRIBAPENA
1.1- «BAT, Ekintzailtzako Nazioarteko Zentroa», II. fasea	<p>Hiriaren apustu ekonomiko handia izaten jarraituko du ekintzailtzako ekimenak sustatzeak eta bultzatzeak. Agintaldi honetan, estrategia horren isla izango da Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera «BAT, Ekintzailtzako Nazioarteko Zentroa»ren II. fasea garatzea.</p> <p>Zentro hau barneko ekintzailtza sustatzeko espazio bat da, <i>startup</i> berritzaileak azkarrago haz daitezzen ahalbidetzen duena, eta, aldi berean, Bilboko eta Bizkaiko erreferentziako enpresetan berrikuntza sustatzen duena berrikuntza irekiko ekimenen bidez. BATEk Bilbora eta Bizkaia erakartzen ditu enpresa-proiektuak, <i>startup</i>ak eta eduki teknologiko eta berritzaile handiko korporazioak, eta, gainera, lagundu egiten du Bilbo nazioarteko erreferentziako polo bihurtzen ekintzailtza berritzailean, nazioarteko erreferentziako ekosistemekin lotzen eta tokiko gure ekintzailtzako ekosistema dinamizatzen.</p>
1.2- «Talent House (Talentuaren Etxea)» sortzea	<p>Zorrotzaurren «Talent House (Talentuaren Etxea)» eraikitzea, nazioarteko talentuaren ostatu-beharrei erantzuteko, gainerako instituzioekin batera koordinatuta, talentua atxikitze, erakartzeko eta garatzeko estrategiaren esparruan (Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza).</p>
1.3- Partzela berriak garatzea Zorrotzaurreko Hiri Parke Teknologikoan	<p>Zorrotzaurre da hirian etorkizunerako aukera handienak dituzten espazio gakoetako bat, eta hainbat erabilera bilduko ditu. Irla bat izango da, bizitzeko, lan egiteko eta gozatzeko. Uharte horren bereizgarrietako bat, beraz, Hiri Parke Teknologikoa izango da, espazioak izango dituena eduki teknologiko handiko eta sormen eta berrikuntza handiko enpresak sortzeko eta ostatzeko, sektore estrategikoetakoak, esaterako, industriakoak, ekonomia digitalekoak eta sorkuntza- eta kultura-industriak.</p> <p>Lau urteotan, partzela berriak garatzea sustatuko dugu, enpresa-, ikerketa- eta prestakuntza-jarduerak egiteko bertan. Hori guztia, beste instituzio, enpresa eta ezagutza-eragile batzuekin batera egingo da.</p>
1.4- Ikus-entzunezkoen polo berria Zorrotzako Muturrean	<p>Zorrotzako Muturra da gure hirian aukera gehien dakartzaten espazioetako beste bat.</p> <p>Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean, mailaka-mailaka garatuko dugu polo hori, Bilbon eta Bizkaian sektorea indartzen lagunduko duena. Lehen fasean, analisi tekniko bat eta aukeren analisi bat egingo dira.</p>
1.5- Enplegu-planak eta -programak	<p>Enplegu-planak eta bestelako programa esperimentalak egingo ditugu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin, lan-merkatutzeko zailtasun handienak dituztenen laneratzea errazteko: emakumeak, 35 urtetik beherako gazteak, luzaroko langabeak, 45 urtetik gorakoak eta bazterketa-arriskuan dauden pertsonak.</p>



1- JARDUERA EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA

JARDUKETA	JARDUKETAREN DESKRIBAPENA
1.6- Ekintzaileentzako laguntza osoa	Hirian kalitatezko enplegua sortzeko gaitasuna duten ekintzaileentzako ekimen guztiak sustatzea, babestea eta haiei laguntzea, bai sortze-fasean bai finkatzekoan eta bizkortzekoan, bereziki ekintzaileentzako kultura bultzatuz eta behar den finantzazioa lortzen lagunduz. Zabalguneko eraikina bihurtuko dugu ekintzaileentzako udal-zerbitzuen eta eragile teknologikoekiko eta ezagutza-eragileekiko elkarlanaren ardatz, eta gaikuntzako, mentoretzako eta lokalizazioko dinamika berriak sortuko ditugu gutxienez ekintzaileentzako 600 ekimen berri laguntzeko.
1.7- «Merkataritza Plan Estrategikoa»	Bilboko «2025 Merkataritza Plan Estrategikoa» udal bide-orri bat da, sektorearen lehiakortasun-egoera eta Bilbok bilbotarrentzat eta bisitariarentzat merkataritza-hiri gisa duen erakargarritasuna hobetzeko eta indartzeko. Sektoreko erakunde ordezkariekin eta beste instituzio batzuekin elkarlanean, neurriak hartzen jarraituko dugu hirigintzaren esparru guztietan merkataritza biziberritzeko, digitalizazioaren eta salmentarako eta bezeroarekin jarduteko kanal berrien bitartez sektorea modernizatzeko eta saltoki txikiak gaztetzeko. Halaber, lanean jarraituko dugu hiriko merkataritza-eredu antolatua, erakargarria eta jasangarria eraikitzeko, gure saltokiek hurbileko eskaintza oparoa egin dezan, bizi-kalitatea, gizarte-kohesioa eta auzoko gozagarritasuna bermatzeko.
1.8- «Udal Azoken Plan Estrategikoa»	«Udal Azoken Plan Estrategikoa» bat egitea eta ezartzea, hiriak berezkoa duen dagoen kontsumo-eredu tradizionala, jasangarritasunaren eta inklusioaren aldekoa, babesteko eta biziberritzeko, Bilboko herritarrek askotariko eta kalitatezko elikagaiak erosi ahal izan ditzaten.
1.9- «Bilbao-Bizkaia 2030 Turismo Estrategia»	«Bilbao-Bizkaia 2030 Turismo Estrategia» garatuko, ezarriko eta ebaluatuko dugu, ostatu-gauen ratioa, pertsonako batezbesteko gastua, fidelizazioa eta errepikatze-tasa hobetzeko, horretarako produktuak, programak eta zerbitzuak garatuz, eta beti lehenetsiz jasangarritasuna erdigunean duen turismo-eredua.
1.10- Nazioarteko ekitaldiak erakartzea eta antolatzea	Bilbora era jasangarri eta orekatuan eragin handiko nazioarteko ekitaldiak erakartzea, bi helbururekin: jarduera ekonomikoa, kulturakoa, kirolekoa edo asiakoa sortzea eta/edo hirira ezagutza erakartzea eta aberastasuna eta enplegua sortzea. Horien adibidez dira 2024ko UEFA Women's Champions League-ren finala eta 2025eko UEFA Europa League-ren finala, besteak beste.



2- GIZARTE-POLITIKAK



ZEIN GJH-RI EGITEN DIO EKARPENA?




ZEIN BALIO INDARTZEN DITU?

Giza Eskubideak errespetatzea
 Elkartasuna
 Justizia soziala
 Emakumeen eta gizonen berdintasuna
 Dibertsitatea eta inklusioa
 Erantzunkidetasuna
 Bizikidetzaz
 Partaidetza
 Osasuna


JARDUKETAK

- 2.1- Gizarte Zerbitzuetako Udal Kontseilua dinamizatzea
- 2.2- «Bilbo, Hiri Adeitsua Adinekoekin» IV. Plana
- 2.3- Adinekoak beren familia-eta gizarte-inguruan geldi daitezen erraztea eta nahi gabeko bakardadeari aurre egitea
- 2.4- Bilbon emakumeen eta gizonen bizitza pertsonalaren, lanekoaren eta familiakoaren kontziliazioa erraztea «Kontziliazioaren eta Erantzunkidetasunaren aldeko Tokiko Itun»aren bidez.
- 2.5- «Bilboko Emakumeen Etxea» sortzea
- 2.6- LGTBI erasoen aurkako protokoloa
- 2.7- Osasunari leku nabarmena ematea udal-agendan. «Osasunaren II. Udal Plana» abian jartzea sustatzea




2- GIZARTE-POLITIKAK

JARDUKETA	JARDUKETAREN DESKRIBAPENA
2.1.- Gizarte Zerbitzuetako Udal Kontseilua dinamizatzea	<p>Gizarte Zerbitzuen Udal Kontseilua partaidetza sozialeko espazio egituratu bat da, eremu horretako udal-jarduketaren ildoak zehazteko eta ebaluatzekoa. Hiru batzorde ditu: haurrak eta familia, etxegabeak eta adinekoak.</p> <p>Agintaldi honetarako helburua da Gizarte Zerbitzuetako Udal Kontseilua espazio handi bihurtzea, egun udal-eremuko gizarte-politikek jasagarritasunari eta zerbitzuaren kalitateari lotuta dituzten erronkei aurre egiteko hausnarketak egiteko modukoa, gizartea gero eta zaharragoa eta askotarikoagoa baita.</p>
2.2.- «Bilbo, Hiri Adeitsua Adinekoekin» IV. Plana	<p>Bilbo Adinekoekin Adeitsua den Hiria izatearen aitortza jaso du, eta bide luzea egin du eremu horretan; horixe islatzen du, hain justu, adinekoen beharrei eta eskariei erantzuteko neurri espezifikoak biltzeko planak egin izanak.</p> <p>Agintaldi honetan III. Plana bukatuko da, eta egindako lorpenak eta Bilbok adinekoekin duen adeitasuna mantentzeko erronka berriak ebaluatuko dira. Gainera, plan berria ere idatziko da. Hori guztia partaidetzazko formatuan egingo da, hiriko ahalik eta adineko pertsona gehienek parte har dezaten IV. Planak jaso beharreko ekintzak diseinatzen.</p>
2.3.- Adinekoak beren familia- eta gizarte-inguruan geldi daitezen erraztea eta nahigabeko bakardadeari aurre egitea	<p>Hainbat urte dira Bilbok zerbitzu eta programa bereziak dituela adinekoek beren familia- eta gizarte-inguruan gelditu ahal izan daitezen, arreta- eta segurtasun-egoera egokian. Horiek dira, esaterako, etxez etxeko laguntza zerbitzua eta «Urrats Bat Gehiago», «Begirada Aktiboa» eta «Zaintzea» programak.</p> <p>Datozen urteetan bi erronka nagusitan sakontzen jarraituko dugu; batetik, arreta-zerbitzuetan estaldura nahikoa eta kalitatezkoa bermatzen, adineko gero eta jende gehiago egongo baita; eta, bestetik, nahigabeko bakardade-egoerei erantzuten eta pertsona horiei gehiago sozializatzen laguntzen.</p>
2.4.- Bilbon emakumeen eta gizonen bizitza pertsonalaren, lanekoaren eta familiakoaren kontziliazioa erraztea «Kontziliazioaren eta Erantzunkidetasunaren aldeko Tokiko Ituna»ren bidez.	<p>Erantzunkidetasunaren eta kontziliazioaren eremuko lana ekintza-ildo estrategikoa da udalarentzat; hortaz, agintaldi honetan arlo horretan garatutako ekimenak indartu egingo dira: Denbora sarea, ikastetxeetan prestakuntza jasotzeko dirulaguntza-lerro gehiago, emakumeen elkarreentzako eta elkarre feministentzako bidelaguntza eta abar.</p> <p>Halaber, «Kontziliazioaren eta Erantzunkidetasunaren aldeko Tokiko Ituna» sustatuko dugu, eta helburu horrekin konpromisoa duten erakundeak eta enpresak atxiki egin ahaliko dira.</p>



2- GIZARTE-POLITIKAK

JARDUKETA	JARDUKETAREN DESKRIBAPENA
2.5- «Bilboko Emakumeen Etxea» sortzea	<p>Bilbok Emakumeen Etxea behar du. Proiektu horrek, batetik, mugimendu feministaren eskari historiko bati erantzuten dio, eta, bestetik, berdintasunaren arloan estatuko eta nazioarteko gainerako hiriburu garrantzitsuen mailara jarriko gaitu, gainerako euskal hiriburuak barne.</p> <p>Emakumeen Etxea erreferentziazko espazioa izango da Bilboko emakumeek hausnartzeko, topagune bat. Konfiantzazko leku bat haien banakako zein taldeko ahalduntzea sustatzeko.</p>
2.6- LGTBI erasoen aurkako protokoloa	<p>Bilboko Udalak konpromisoa du tolerantziaren eta sexu-dibertsitatearen aldeko herri-kontzientzia bultzatzeko, gizartean sexu-orientazioagatiko eta genero-identitateagatiko bazterkeria ikusarazteko eta desagerrarazteko lana eginez.</p> <p>Hori lortzeko, hobetu eta sakondu egingo da gorrotozko, arrazakeriazko, xenofobiazko, ijitoen aurkako eta LGTBIfobiazko gertakarietarako aholku- eta jarduketa-protokoloa, 2023ko Aste Nagusirako. Halaber, protokolo hori aisiako beste espazio batzuetara eta hiriko beste ekitaldi garrantzitsu batzuetara zabalduko du. Horretarako, eragile gehiago atxiki beharko dira, eta haien prestakuntza eta sentsibilizazio egokia bermatu beharko da.</p>
2.7- Osasunari leku nabarmena ematea udal-agendan. «Osasunaren II. Udal Plana» abian jartzea sustatzea	<p>2019-2023 aldiko I. Plana ezartzean lortutako esperientziari esker, «Udalaren II. Osasun Plana»ren xedea izango da udal-alorrek Bilbo osasuntsuagoa lortzeko hartutako konpromisoak ezartzea, eta, horrez gain, lortzea Bilboko herritarrak beren osasunaren eta ongizatearen protagonista eta eragile aktibo izan daitezen, arreta berezia jarriz zaurgarritasun-egoera handiengan dauden pertsonen eta kolektiboen.</p>



3- GAZTERIA, BALIOEN GARAPENA, HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA



ZEIN GJH-RI EGITEN DIO EKARPENA?




ZEIN BALIO INDARTZEN DITU?

Elkartasuna
Bizikidetz
Nortasuna
Partaidetz
Ilusioa


JARDUKETAK

- 3.1- «Konekta programa» sustatzea, Bilboko gazteriaren harreman-eta zerbitzu-espazio berritzaile gisa
- 3.2- Bakearen eta Bizikidetzaren Aldeko Bilboko Topagunea
- 3.3- «Bilbao Balioen Hiria» proiektua garatzen jarraitzea, partaidetzaz, batzordea indartuz eta haren jardueren berri emanez
- 3.4- Bilboren lidergotza GJHak lokalizatzen. Elkarlan jarraitua Local 2030 koalizioaren idazkaritzarekin, zeinak egoitza iraunkorra Bilbon duen
- 3.5- «Haur eta Nerabeen Udal Plana»
- 3.6- Hiriko auzoetako haurreskoletako plazak ugaritzea
- 3.7- Bilbok unibertsitate-hiri gisa duen posizioa indartzea




3- GAZTERIA, BALIOEN GARAPENA, HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA

JARDUKETA	JARDUKETAREN DESKRIBAPENA
3.1- «Konekta programa» sustatzea, Bilboko gazteriaren harreman-eta zerbitzu-espazio berritzaile gisa	<p>«Bilbao Hiri Gaztea» tokiko gazteria-planaren helburua da Bilbo aukeraz betetako hiri bihurtzea, gazteen ongizate osoa eta bizi-garapena sustatzeko, elkarrizketa erraztuz eta oraingo eta etorkizuneko Bilboren diseinuari lotuta gazteen elkarlanerako eta kosorkuntzarako espazioak sortuz.</p> <p>Plan horren esparruan sustatuko da «Konekta Plana». Batetik, lagundu egiten die Bilboko garapen jasangarri eta integratzailean eragina duten gazteen ekimenei eta proposamenei, eta, bestetik, gazteentzako eta nerabeentzako partaidetza-espazio bat da.</p>
3.2- Bakearen eta Bizikidetzaren Aldeko Bilboko Topagunea	<p>Bakearen eta Bizikidetzaren Aldeko Bilboko Topaguneak irauteko ekimen eta ekintza berriak, beti biktimekin alboz albo.</p> <p>Biktimentzako banakako bidelaguntza- eta laguntza-ekintzak garatuko dira, eta Bilboko Topagunean Eusko Jaurlaritzak biktima gisa identifikatutakoak sartuko dira. Halaber, pedagogia soziala, sentsibilizazioa eta erreparazioa sustatzeko ekintzak egingo dira, oroimen-ekitaldiak eta kultur jarduerak antolatuz. Gainera, plakak jarriko dira biktimen omenez, eta, horrela, Bilboko Oroimenaren Mapa eratuko da.</p>
3.3- «Bilbao Balioen Hiria» proiektua garatzen jarraitzea, partaidetzaz, batzordea indartuz eta haren jardueren berri emanez	<p>Bilboko Balioen Agiria 2018an onetsi zen, eta ordutik hainbat ekintza egin dira hura garatzeko eta haren berri emateko, Bilbao Balioen Hiria ekimenaren esparruan.</p> <p>Agintaldi honetan, gaur arte egindako eragina ebaluatuko da, eta 2024-2027 agenda diseinatuko eta abiaraziko da, zeinak bereziki indartuko du Balioen Agiriarekiko atxikimendua, Jarraipen Batzordea sendotzea (Kontseilu Zibikoa) eta Balioen Agiria tokian-tokian zein nazioartean zabaltzea.</p>
3.4- Bilboren lidergoa GJHak lokalizatzen. Elkarlan jarraitua Local 2030 koalizioaren idazkaritzarekin, Bilbon egoitza iraunkorra duenarekin	<p>Bilbo GHJen lokalizazioaren arloan lider izatea sustatuko da, «Bilbao Jasangarria: Agenda 2030 eta GJHak» ekintza-planean jasotako jarduketak eginez. Zehazki, Local2030 koalizioaren idazkaritzaren egoitza iraunkorra Bilbon dagoela baliatuz, lan egingo da Bilbok giza garapen jasangarriarekin konprometitutako hiri gisa duen posizioa hobetzeko, eta Bilbora Agenda 2030rekin lotutako ezagutza, jardunbide egokiak eta nazioarteko ekitaldiak erakarriz.</p>



3- GAZTERIA, BALIOEN GARAPENA, HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA

JARDUKETA	JARDUKETAREN DESKRIBAPENA
3.5- «Haur eta Nerabeen Udal Plana»	<p>Bilbok 2019an lortu zuen UNICEFek «Haurren Hiri Laguna» izendapena ematea. Eremu horretan bi udal-plan egiteaz gain, Haurren eta Nerabeen Udal Kontseilua sortu zuen, haurren eta nerabeen partaidetza antolatzeko, hau da, leku bat izan dezaten adierazi nahi dutena esateko eta ideiak proposatzeko.</p> <p>Agintaldi honetan 2025era arte indarrean dagoen II. Planean jasotako 188 ekintza egingo dira, udal-alor guztiek parte hartuko dute, eta kontseiluak protagonismo berezia izango du.</p>
3.6- Hiriko auzoetan haurreskoletako plazak ugaritzea	<p>Bilboko Udalak konpromisoa hartua du haurtzarotik hezkuntzako zerbitzuak eta azpiegiturak eskuragarri jartzeko eta gurasoen kontziliazioa errazteko. Haien eskura jartzen ditu haurreskolak, hiriko auzoetan. Azken urteotan ahalegin handia egin bada ere, 0-3 etapa doako egiteak matrikulazioen gorakada nabarmena ekarri zuen.</p> <p>Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin koordinazio-lana egiten jarraituko da beharrezkoak diren jarduketak era koordinatuan egiteko, Haurreskolak Partzuergoaren zeregina indartzeko, haurreskola berriak sortzeko eta, beraz, aurkeztutako eskabideak matrikulatu ahal izatea bermatzeko.</p>
3.7- Bilbok unibertsitate-hiri gisa duen posizioa indartzea	<p>«Bilbao, Unibertsitate Hiri» estrategia garatuko dugu, estatuko eta nazioarteko ikasleak erakartzeko, bereziki graduondoko ikasketetara eta masterretara eta ikasgai tekniko eta teknologikoetara. Lau laguntza-ildo jorratuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Unibertsitate bakoitzak garatu beharreko trakzio-proiektuak, nazioarteko beste unibertsitate batzuekin elkarlana sustatzen dutenak. ▪ Ezagutza bektore estrategiko gisa indartzeko proiektu bateratuak. ▪ Unibertsitate-bizitza errazteko udal bidelaguntza-plana: mugikortasuna, aisia, kultura, ostatua eta abar. ▪ «Bilbao Hiri Laborategia» proiektua, hirirako proiektu interesgarriak sustatzeko, unibertsitateko berrikuntza-gaitasunez baliatuz.



4- KULTURA ETA KIROLA



ZEIN GJH-RI EGITEN DIO EKARPENA?



ZEIN BALIO INDARTZEN DITU?


Sormena

Partaidetza

Osasuna


JARDUKETAK

- 4.1- Bilboko Arte Ederren Museoaren garapen museologikoa
- 4.2- «Kulturako Hartzaileen Plana» egitea
- 4.3- Euskal Museoaren garapen museologikoa eta museografikoa, euskal kulturaren nazioarteko erreferentzia bihurtzea
- 4.4- Udal Kultur Kontseilua sortzea
- 4.5- Kiroldagien eta udalaren bestelako kirol-ekipamenduen inbertsioen eta mantentze-lanen hainbat urteko plana
- 4.6- Kasillako Kiroldagia osorik berritzeko lanak lizitatzea eta hastea
- 4.7- Espazio publikoko kirol-ekipamenduen eskaintza handitzea




4- KULTURA ETA KIROLA

JARDUKETA	JARDUKETAREN DESKRIBAPENA
4.1- Bilboko Arte Ederren Museoaren garapen museologikoa	Eusko Jaurlaritzarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera, Bilboko Udalak jarraitu egingo du Arte Ederren Museoa handitzeko eta berritzeko lanak sustatzen, gizartearen zerbitzura artea kontserbatzeko eta erakusteko leku egokia emateko. Handitzeak aukera emango du herritarren eta kulturaren eta artearen topaleku gisa museoak duen izaera sakontzeko, eraikinari eta bertako erakusketei balioa emanez euskal gizartearen eta gora doan turismo kulturalaren aurrean.
4.2- «Kulturako Hartzaileen Plana» egitea	Edozein udal-politika ondo garatzeko gakoetako bat da audientziak sortzea, sustatzea eta fidelizatzea. Horretarako, 2023-2033 aldirako «Bilboko Kulturaren Plan Estrategikoa» barnean hartzen du «Kulturako Hartzaileen Plana» egitea eta aplikatzea, hartzaipeak hobeto ezagutzeko eta segmentatzeko, kultur edukiak herritarrei bide berrietatik helarazteko, topaketarako eta elkarrizketarako espazioak sortzeko, eta partaidetza errazteko eta programak partaidetzaz eta batera diseinatzeko ereduak sustatzeko.
4.3- Euskal Museoaren garapen museologikoa eta museografikoa, euskal kulturaren nazioarteko erreferentzia bihurtu dadin	Euskal Museoa euskal kulturaren erreferentzia bat da, eta gakoa da euskal artea eta tradizioak zabaltzeko, euskal kulturarako atari bihurtuta (mundura irekitako atea). Gaur egun, 20 000 objektu baino gehiagoko ondarea du, gure arbasoen bizitzaren eta egunerokoaren askotariko alderdiak irudikatzen eta islatzen dituena. Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera, Bilboko Udalak jarraitu egingo du Euskal Museoaren berritze osoa sustatzen, bai arkitekturari dagokionez (eraikinaren zaharberitze osoa eta birmoldatze funtzionala amaituz) bai museografiari dagokionez (erakusketa-diskurtso berria diseinatzuz).
4.4- Udal Kultur Kontseilua sortzea	«Bilboko Kulturaren Plan Estrategikoa 2023-2033» entzute aktiboko metodologiari jarraituz egin da, eta sektoreko eragile askok hartu dute parte: instituzioek, herritarrek eta kultur elkarreketako ordezkariak. Partaidetzazko filosofia hori sakontzeko, planak jasotako ekintzetako bat da Udal Kultur Kontseilua abian jartzea, sektoreko partaidetzazko organo aholku-emalea, Bilboko kultur jarduerari buruzko informazioa, eztabaida, kontsulta eta jarraipena erraztuko dituena.



4- KULTURA ETA KIROLA

JARDUKETA	JARDUKETAREN DESKRIBAPENA
4.5- Kiroldegien eta udalaren bestelako kirol-ekipamenduen inbertsioen eta mantentze-lanen urte anitzeko plana	<p>«Kiroldegien eta udalaren bestelako kirol-ekipamenduen inbertsioen eta mantentze-lanen urte anitzeko plana» garatzen jarraitzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Irisgarritasun unibertsala: Zorrotzako, Abusuko eta Deustuko kiroldegiak. ▪ BIM kudeaketa-ereduak: San Ignazioko, Miribillako eta Zorrotzako kiroldegiak. ▪ Espazio berriak: Txurdinagako eta Errekaldeko kiroldegiak. ▪ Jarduketa integratuak kiroldegietan, igogailuak berritzea, araztegiak, autobabesa hobetzea, fitness areto guztiak berritzea, seinaleak berritzea eta abar.
4.6- Kasillako Kiroldegia osorik berritzeko lanak lizitatzea eta hastea	<p>Kasilla Berrirako lehia-elkarrizketaren fasea amaitu ondoren, Kasilla Berriko obra publikoko lagapenaren, mantentze-lanen eta ustiapenaren lizitazio-prozedurari ekingo zaio. Helburua izango da pabiloi zaharra osorik berritzea, udalaren kirol-ekipamendu konpaktu berri bat sortzeko, egungoa ordeztuko duena eta dagoen kirol-eskaintza bilduko, hobetuko eta zabalduko duena. Gainera, aztertu egin nahi da udal-partzelaren barruan bestelako kirol-, aisia- eta dinamizazio-jarduerak eta -instalazioak garatzeko aukera, ekipamendu berrira egokituta, hirigintzako plangintzak emandako aukeren arabera.</p> <p>Horretarako, aurreikusi da lizitazio hori egitea, eta obrak adjudikatzea eta hastea, proiektua eta dagokion finantzazio-plana onetsi ondoren, arlo publikoaren eta pribatuaren elkarlanaren bidez.</p>
4.7- Espazio publikoko kirol-ekipamenduen eskaintza handitzea	<p>Hiri-espazioak errekonkistatzea kirolaren azken aldiko bilakaeraren funtsezko alderdi bat da. Egoera horretan agertu eta indartu dira kirol-jarduera berriak, batez ere jolas- eta harreman-alderdia txertatua dutenak, eta, aldi berean, egoera fisikoa eta osasuna hobetzeko aukera ematen dutenak eta herritarren arteko interakzio-dinamika berriak ahalbidetzen dituztenak. Halaber, hiria ulertzeko modu ludikoagoa erakusten dute.</p> <p>Datozen urteetan lan egingo da ikastetxeetako kirol-instalazioen erabilera hobetzeko eta optimizatzeko, espazio publikoko kirol-instalazio txikien eskaintza handitzeko, gorabidean dauden kirol-jarduerena, eta bereziki gazteen eta adinekoen artean interes handia sortzen dutenena.</p>



5- BIZIKIDETZA ETA SEGURTASUNA



ZEIN GJH-RI EGITEN DIO EKARPENA?



ZEIN BALIO INDARTZEN DITU?

Bizikidetza

Konfiantza

Partaidetza

Osasuna

JARDUKETAK

5.1- «Hiriaren Segurtasunaren aldeko Ituna»

5.2- Gizartea hiriko zibismoaz kontzientziatzeko kanpaina

5.3- Hiriko segurtasunari buruzko tailerrak auzoetan, auzotarren parte hartzeko tresna gisa


5.4- Trafiko-istripuak murriztea eta haien kaltegarritasuna txikitzea, arreta berezia jarritz hirigunean 30 k/h-ko abiadura-muga betearaztean

5.5- Delituen salaketa erraztea, komisarian eta iragaitzan egin ahal izateaz gain, Internetetik egiteko aukera ezartzea barne

5.6- Auzoetan udaltzain uniformedunak eta uniformerik gabeak egotea

5.7- «Udalaren Larrialdi Plana» (ULP) eguneratzea eta era koordinatuan kudeatzeko plataforma digital bat ezartzea

5.8- Suhiltzaile-parke berria Deustun




5- BIZIKIDETZA ETA SEGURTASUNA

JARDUKETA	JARDUKETAREN DESKRIBAPENA
5.1- «Hiriaren Segurtasunaren aldeko Ituna»	«Bilboko Hiriaren Segurtasunaren aldeko Ituna» udal-taldeek sinatu zuten 2018an, eta haren konpromisoa da lanean jarraitzea, era proaktiboan, auzoetan bizikidetza eta segurtasuna bermatzen jarraitzeko; horretarako, 25 neurri zehatz ezartzen ditu herritarren segurtasuna indartzeko, prebentzioa abiapuntu, auzoko eta komunitateko polizia-eredua sustatuta. Planaren indarraldia 2023an amaitzen da; horregatik, eguneratzeko lan egingo da, hiriaren segurtasunaren erronka berriei aurre egiteko.
5.2- Gizartea hiriko zibismoaz kontzientziatzeko kanpaina	Bilboko Udalak ezinbestekotzat jotzen du hirian gizartearen zibismoaz kontzientziatzeko kanpainak egitea. Kanpainak egingo dira saltzaile ibiltariei, elikagaiei, zaratari, txakurrei, kaleko musikari eta terrazai buruz, besteak beste. Gainera, prestakuntza emango da eskoletan bullyingari buruz, eta, oro har, delitu digitalen prebentzioari buruz, adibidez, ziberjazarpena eta nortasunaren eta jabetzaren aurkako bestelako delitu informatikoak ekiditeari buruz.
5.3- Hiriko segurtasunari buruzko tailerrak auzoetan, auzotarren parte hartzeko tresna gisa	Auzoko eta komunitateko polizia-ereduaren parte da herritarren partaidetza, segurtasuna eta prebentzioa herritarrekin beraiekin elkarlanean eraikitzen direla ulertzen baita; gainera, erantzunkidetasuna eta konfiantza sustatzen ditu horrek. Horretarako, Bilboko auzoetan hiriko segurtasunari buruzko tailerrak ematen jarraituko da. Tailer horietan auzo bakoitzaren arazoak landu daitezke beren-beregi, eta foro bat sortzen dute, entzute aktibokoa, kontu ematekoa eta herritarren, gizarte-eragileen, elkarteen eta Udaltzaingoaeren artean elkarlanean aritzeko.
5.4- Trafiko-istripuak murriztea eta haien kaltegarritasuna txikitzea, arreta berezia jarritz hirigunean 30 k/h-ko abiadura-muga betearaztean	Bilboko Udalak konpromisoa hartzen du bide-segurtasunari lehentasuna emateko eta hirigunea espazio seguruagoa bihurtzeko, trafiko istripuak eta haiek gure komunitatean duten eragina murriztuz. Horretarako, kontzientziazio-ekintzak egingo dira azken urteotako joera positiboa indartzeko. Halaber, kontrol-neurriak ezarriko dira, hirigunean abiadura txikitzeko, eta horrek eragin positiboa izango du: istripuen tasa eta larritasun txikiagoa.



5- BIZIKIDETZA ETA SEGURTASUNA

JARDUKETA	JARDUKETAREN DESKRIBAPENA
5.5- Delituen salaketa erraztea, eta komisarian eta iragaitzan egin ahal izateaz gain Interneten ere egin ahal izatea	Ekimenak garatzen jarraituko da, polizia-baliabideak gero eta eskuragarriago izan daitezen. Horretarako, tresna digital mugikorrek emango zaizkie agenteei, polizia-zerbitzu gehienak <i>in situ</i> eman ahal izateko, eta ez ikuskaritzetan soilik. Gainera, Interneten bidez egile ezezaguneko delitu arinen salaketa soilak jartzeko aukera emango da.
5.6- Auzoetan udaltzain uniformedunak eta uniformerik gabek egotea	Uniformedun eta uniformerik gabeko polizien konbinaketa egokian oinarritutako lan-ildo horretan jarraituko da. Batetik, segurtasun-pertzepzioa handiagoa da patruilak uniformeak daramatenean, baina, esan gabe doa, delitu jakin batzuei jarraipena egiteko uniformerik gabeko poliziak egotea eta haiek esku hartzea ezinbestekoa da. Bi patruila-motak osagarriak dira, eta batera egitea beharrezkoa da.
5.7- «Udalaren Larrialdi Plana» (ULP) eguneratzea eta era koordinatuan kudeatzeko plataforma digital bat ezartzea	«Udalaren Larrialdi Plana» (ULP) eguneratu egingo da, eta plataforma digital bat ezarriko da hura koordinatuta kudeatzeko, udal alor guztiak bertan murgilduta.
5.8- Suhiltzaile-parke berria Deustun	Agintaldi honetan Deustuko inguruan suhiltzaile-parke berria eraikitzea.



6- HIRI-ERALDAKETA JASANGARRIA



ZEIN GJH-RI EGITEN DIO EKARPENA?




ZEIN BALIO INDARTZEN DITU?

Ingurumenaren jasangarritasuna
Bizikidetzatza
Ilusioa
Osasuna


JARDUKETAK

- 6.1- Herritarrentzako Etxebizitzari buruzko Arreta Bulegoa
- 6.2- «Etxebizitza Renove Plana»
- 6.3- Etxebizitza sozialaren eta alokairu ordaingarriko etxebizitza publikoak ugaritzea
- 6.4- Abandoko geltoki berriaren eremua definitzea: eraikuntza-proiektua eta Master Plana
- 6.5- «Iturrigorriko Plan Berezia» behin betiko onestea eta lehen fasea garatzea
- 6.6- Otxarkoaga auzoan hiriaren berroneratze integralerako «Orain Otxar» programan lanean jarraitzea
- 6.7- Hiriaren berroneratze integralerako proiektu berriak garatzea Untzeta Parrokoaren auzunean, Torreurizar etxaldean eta Uretamendi auzoan
- 6.8- «Artxandako Plan Berezia» idaztea eta abiaraztea
- 6.9- Ibaiadarra babestea eta kontserbatzea eta jarduera ekonomikoaren eta herritarren gozamenaren motor bihurtzea
- 6.10- Pasealekua zabaltzea Zorrotzako Muturrean
- 6.11- Beste instituzio batzuen eskumenekoak izanda ere Bilborako estrategikoak diren azpiegituren proiektu estrategikoak erraztea eta bultzatzea
- 6.12- Hiri-baratzeen kopurua handitzea eta hiriko beste gune batzuetara zabaltzea
- 6.13- Energia-erkidegoak sortzea sustatzea
- 6.14- Hirian espazio naturalizatu berriak sortzea (berdeguneak)




6- HIRI-ERALDAKETA JASANGARRIA

JARDUKETA	JARDUKETAREN DESKRIBAPENA
6.1- Herritarrentzako Etxebizitzari buruzko Arreta Bulegoa	<p>Herritarrentzako Etxebizitzari buruzko Arreta Bulegoa, 2023ko martxoan inauguratua, zabaltzea, arlo horretan herritarrentzako informazio- eta arreta-puntu zentral bihurtu arte.</p> <p>Bulegoak informazioa eta laguntza emango du askotariko gaiak izapidetzeko, esaterako, Etxebideko etxebizitza-eskatzaile moduan izena ematea, etxebizitza-prestazioei lotutako laguntzak (errentak ordaintzeko laguntzak, gazteentzako etxebizitza eskuratzeko programak eta abar), etxebizitzen irisgarritasunerako eta birgaitzeko programak eta laguntzak, energia-efizientzia sustatzea, etxebizitza hutsa mugiaraztea eta etxegabetze-egoeretarako udal-zerbitzua.</p>
6.2- «Etxebizitza Renove Plana»	<p>Honako hauek bilduko ditu jarduketa honek:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Birgaitzeko laguntzak, bai banakako etxebizitzetarakoak bai erkidegoetarakoak. ▪ Irisgarritasuna hobetzeko laguntzak. ▪ Energia-efizientzia hobetzeko laguntzak. ▪ Birgaitze osorako bulegoak irekitzea (Open Gela programa) hiriko hainbat auzotan. Bulego horiekin koordinatuta, bizitoki-baliabideak eraberritzeari helduko zaio, baita eraberritze ekonomikoari (auzotarren enplegarritasuna hobetzeko ekintzak), eraberritze soziokulturalari eta ingurumena eraberritzeari ere.
6.3- Etxebizitza sozialaren eta alokairu ordaingarriko etxebizitza publikoak argitzea	<p>Helburua da 200 bizitoki-baliabide sozial gehiago eskaintzea lau urtean, gutxi gorabehera, zuzkidura-bizitokiak gehituz eta etxebizitza erosiz eta sustatuz. Inbertsioa 23 milioi euro ingurukoa izango da.</p>
6.4- Abandoko geltoki berriaren eremua definitzea: eraikuntza-proiektua eta Master Plana	<p>Bilbora abiadura handiko tren geltokian denean hirigintzako esku-hartzeak egin beharko dira Abandoko geltokiaren hurbileko lurretan eta espazioetan, geltoki berria hirian txertatzeko eta azpiegitura berrirako sarbideak egiteko.</p> <p>Eraikuntza-proiektua idatziko da (ADIFek dagoeneko adjudikatu du Abandoko etorkizuneko geltokiaren eraikuntza-proiektua idatzeko kontratua, 5 urtean egikaritu beharrekoa), eta Master Planaren proiektua hautatuko da Abandoko eremuko etorkizuneko hirigintza-erabileretarako.</p>



6- HIRI-ERALDAKETA JASANGARRIA

JARDUKETA	JARDUKETAREN DESKRIBAPENA
6.5- «Iturrigorriko Plan Berezia» behin betiko onestea eta lehen fasea garatzea	Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko Udalak hiria berritzeko hainbat jarduketa egin dituzte Iturrigorri eta Gardezabal guneeetan; besteak beste, etxebizitzak eraistea eta haietan bizi zirenak irisgarritasun-bermeak dituzten eraikin berrietan ostatu ematea. Berroneratze-jarduketa horiek betetzeko, eta gunen antolamendua definitzeko, behin betiko onetsiko da «Iturrigorriko Plan Berezia», eta Iturrigorriin 84 etxebizitzako bloke bat eraikitzeko lizentzia izapidetuko da. Agintaldi honetan eraikiko da, planaren hurrengo faseko ostatu emateekin hasteko.
6.6- Otxarkoaga auzoan hiriaren berroneratze integralerako «Orain Otxar» programan lanean jarraitzea	Next Generation funtsetatik lortutako finantzazioa esleitzea, harik eta 240 etxebizitza birgaitu, birgaitzeko behar bereziko gunen izendatuz bi pisu-bloketan terrazak handitu eta hiriaren berroneratze- eta berritze-arloan espezializazio- eta ikerketa-egoitza izango den «Open Gela» garatu arte. «Azoka txinatarrak» berroneratzea ere planteatuko da, eraikinaren arkitektura berrituz eta eraikina auzoko kontsumo-errealitate berrira egokituz.
6.7- Hiriaren berroneratze integralerako proiektu berriak garatzea Untzeta Parrokoaren auzunean, Torreurizar etxaldean eta Uretamendi auzoan	Untzeta Parrokoaren auzunean, Torreurizar etxaldean eta Uretamendi auzoan berroneratze integraleko lanak amaitzea, irisgarritasun unibertsalaren eta energia-efizientziaren irizpideei jarraituz. Gainera, birnaturalizatzeko ekintzak egingo dira, eta birgaitzeari lotutako prestakuntza- eta enplegu-programak ere bai.
6.8- «Artxandako Plan Berezia» idaztea eta abiaraztea	«Artxandako Plan Berezia» onetsiko da, baita «Artxanda Eremua Sondikarekin Bateragarri Egiteko Plana», hegi osoaren hirigintza antolatuzko, Erandioerakiko mugatik hasi eta Egirleta Mendatera arte, hiriaren eraztun berdea finkatzeko eta handitzeko, Artxandako dinamizazioan aurrera egiteko, Berriz bidearen ondoko guneko ingurumena berreskuratzeko eta inguru horretan aurretik zeuden egituretan ostalaritzako, aisiako eta denbora libreko jarduerak garatzea ahalbidetzeko.




6- HIRI-ERALDAKETA JASANGARRIA

JARDUKETA	JARDUKETAREN DESKRIBAPENA
6.9- Ibaiadarra babestea eta kontserbatzea eta jarduera ekonomikoaren eta herritarren gozamenaren motor bihurtzea	<p>Bilbo jasaten ari den eraldaketa historikoan, ibaiadarra hiriaren ardatza da, eta dinamizazio-zeregin funtsezkoa du udalerrian bizi-kalitatea hobetzeko, hiriko garapenaren ardatz jasangarri moduan. Horretarako, hiru ildo estrategiko jorratuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Segurtasuna: klima-gertakari kaltegarrien aurrean hiriaren babesa hobetuko duten jarduketak definitzea eta sustatzea. ▪ Biodibertsitatea: askotariko espezieen, ekosistemen eta paisaien presentzia indartzea. ▪ Aktibazioa: ibaiadarraren inguruan erabilerak eta jarduerak garatzea.
6.10- Pasealekua zabaltzea Zorrotzako Muturrean	<p>Pasealeku hori mailaka-mailaka zabaltzea, eta beharrezkoa den lekuan deskontaminazio-jarduketak egitea.</p>
6.11- Beste instituzio batzuen eskumenekoak izanda ere Bilborako estrategikoak diren azpiegituren proiektu estrategikoak erraztea eta bultzatzea	<p>Komunikazio arina mantentzea ADIFekin, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta ETSrekin, Bilbon tren-azpiegiturak garatzeko; Trenbide Estuko Burdinbideak Zorrotzan lurperatzea eta tranbiaren garapenak kofinantzatzeko; eta gainerako administrazioekin elkarlanean aritzea metroaren 4. linea eta Errekaldeko saihesbidea garatzeko.</p>
6.12- Hiri-baratzeen kopurua handitzea eta hiriko beste gune batzuetara zabaltzea	<p>Bilboko Udalak urteak daramatza herritarrei eta kolektiboek udal-lursailak lagatzen, norberaren kontsumorako ortuariak lor ditzaten, partaidetzazko eta ardurazko jokabideak sortzeko ingurumen-hezkuntza zabaltzen lagunduko duen esperientzia lor dezaten, osasun ona izateko elikadura osasungarriaren garrantziaz kontzientziazteko, eta auzoko bizitza soziala dinamizatzeko.</p> <p>Proiektu horrek aurrera jarraituko du, handitu egingo baita hiri-baratzeen kopurua, eta zabaltzeko baitira beste auzo batzuetara.</p>



6- HIRI-ERALDAKETA JASANGARRIA

JARDUKETA	JARDUKETAREN DESKRIBAPENA
6.13- Energia-erkidegoak sortzea sustatzea	Energiaren BilbaoEner udal-sozietatearen bidez, eta udalaren «Energia Aroko Jarduketa Plana»ri jarraituz, energia-erkidegoak sortzea sustatuko da, eta energia berriztagarriko komunitateko instalazioen onuren berri emango da, baita horrelako ekimenetarako azpiegitura-beharrei eta dauden laguntzen berri ere, eta hirian horrelako erkidegoak sortzea eta garatzea erraztuko da.
6.14- Hirian espazio naturalizatu berriak sortzea (berdeguneak)	Jarduketa honen xedea da balioa aitortzea Bilboko ondare berdeari eta herritarren natura hurbiltzea, eraztun berdea deritzoneko hiriko naturguneak eta berdeguneak hobetuz. Horretarako, Bilboko Udalak jarraitu egingo du hiriko berdeguneak zabaltzen, desjabetzen edo azalera berrietako hirigintza-garapenetako zuzkidura gisa jasotzen; eta horrek handitu egingo du hiriko azalera berdea, esaterako, Boluetan, Zorrotzaurren, Abandon eta Iturrigorri. Halaber, jarraituko egingo da hiriko eraztun berdeko udal-jabetza handitzen, udal-jabetzako partzeletan zuhaitzak landatzen eta mailaka-mailaka espezie aloktonoak kentzen eta autoktonoak landatzen. Esaterako, hurbileko berdeguneak sortuko dira Atxetabidean (Sarrikue) eta parke berri bat egingo da Larreagaburuko magalean.



7- GARRAIOA, MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA



ZEIN GJH-RI EGITEN DIO EKARPENA?



ZEIN BALIO INDARTZEN DITU?

Ingurumen-jasangarritasuna

Dibertsitatea eta inklusioa

Osasuna

JARDUKETAK

7.1- Hiriko busak (Bilbobus) berritzea unitate elektriko eta hibrido berrieekin

7.2- Autoak kargatzeko puntu publikoak ugaritzea, ibilgailu elektrikoak gehiago erabil daitezzen

7.3- «BilbaoBizi»n, bizikleten mailegurako udal-zerbitzuan, eskuragarri dauden puntuen eta bizikleten kopurua handitzea.

7.4- «Bilboko Auzoetako Irisgarritasun Plana» garatzen jarraitzea

7.5- Garraio publikoa dibertsitate funtzionala duten pertsonen egokitzeko prozesua indartzea

7.6- Jabeen erkidegoei irisgarritasun-arazoak konpontzeko laguntza ematen jarraitzea




7- GARRAIOA, MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA

JARDUKETA	JARDUKETAREN DESKRIBAPENA
7.1- Hiriko busak (Bilbobus) berritzea unitate elektriko eta hibrido berriekin	Bilboko Udalaren mugikortasun-politiken xedea da herritarren osasuna eta bizi-kalitatea hobetzea. Horregatik, «zero isurketako» aukerak sustatzen dira udal-autobus eta -ibilgailuetarako, partikula kutsatzaileen eta CO ₂ aren isurketak mugatzeko. Helburua da mailaka ibilgailu eta autobus guztiak ordeztzea, flotaren % 100 unitate ez-kutsatzailez eta, ahal dela, elektrikoaz, osatuta egoteko. Hortaz, eskuratutako ibilgailu orok ezaugarri horiek izango ditu.
7.2- Autoak kargatzeko puntu publikoak ugaritzea, ibilgailu elektrikoak gehiago erabil daitezten	Bilboko Udalak mugikortasuna deskarbonizatzea sustatzen du, ibilgailu elektrikoak erabiltzea bultzatuz. Horrek, airearen kalitatea hobetzen eta, ondorioz, kutsadura gutxiago jasan beharregatik Bilboko herritarren osasuna hobetzen laguntzeaz gain, hots-kutsadura txikitzen ere laguntzen du, eta, hortaz, hari lotutako gaixotasunak murrizten ere bai. Helburu horretarantz jotzen jarraitzeko, aurrera egingo da sestrapeko aparkaleku-plaza publikoetan autoa kargatzeko puntuak jartzeko planean. Datozen lau urteetan egoiliarrentzako aparkalekuetan plaza gehiago elektrifikatuko dira.
7.3- «BilbaoBizi»n, bizikleten mailegurako udal-zerbitzuan, eskuragarri dauden puntuen eta bizikleten kopurua handitzea.	Bilboko Udalak bultzatutako politikei esker, esaterako, udalaren bizikleta-maileguen «BilbaoBizi» zerbitzua sortu izanari, azken urteotan bizikletaren erabilera nabarmen hazi da gure hirian, eta mugikortasun-bitarteko jasagarria da. Zalantzarik gabe aurrera egin dugun arren, Bilboko Udalak bizikletaren erabilera are gehiago sustatu nahi du. Horretarako, hainbat ekintza egitea aurreikusi da; adibidez, pedalei eragiteko laguntza duten bizikleten kopurua handitzea, baita mailegu-puntuak eta bizikletak ainguratzekoak ere. Gainera, «BizkaiBizi» proiektuan parte hartuko da, zerbitzu publiko metropolitarrak hori txertatuz eta hirian pedalei eragiteko laguntza duten zerbitzu horretako bizikleten mailegurako hainbat puntu jarritz.
7.4- «Bilboko Auzoetako Irisgarritasun Plana» garatzen jarraitzea	Udalaren lehentasunetako bat da Bilboko auzoak etengabe hobetzea eta berroneratzea. Horregatik, programa hau garatzen jarraitu da, apurka-apurka orografia bereziak dakartzan irisgarritasun- eta ekipamendu-gabeziak arintzeko.
7.5- Garraio publikoa dibertsitate funtzionala duten pertsonen egokitzeko prozesua indartzea	Ekimen berriak diseinatuko eta abiaraziko dira garraibide guztietarako irispide unibertsala lortzeko, dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako neurri teknikoak barne.



7- GARRAIOA, MUGIKORTASUNA ETA IRISGARRITASUNA

JARDUKETA	JARDUKETAREN DESKRIBAPENA
<p>7.6- Jabeen erkidegoei irisgarritasun-arazoak konpontzeko laguntza ematen jarraitzea</p>	<p>Irisgarritasuna hobetzea guztiontzako Bilbo eraikitzeke lehentasun bat da. Nahiz eta nabarmen hobetu den espazio eta ekipamendu publikoetako irisgarritasuna, oraindik ere lan handia dago espazio pribatuen irisgarritasunean.</p> <p>Erronka nagusietako bat da mailakako irtenbidea ematea gaur egun igogailurik ez duten hiriko eraikinei (% 15). Horretarako, udal-laguntza ekonomikoak indartu egingo dira, eta udal espazio publiko bat lagako da, behar den irisgarritasuna lortzeko irtenbide teknikorik onena denean.</p>



8- AUZOEN GARAPENA



ZEIN GJH-RI EGITEN DIO EKARPENA?



ZEIN BALIO INDARTZEN DITU?

Elkartasuna

Dibertsitatea eta inklusioa

Ingurumen-jasangarritasuna

Bizikidetzaz

Nortasuna

Partaidetza

JARDUKETAK

8.1- Oinezkoentzako espazioak eta «auzo-bihotzak» sortzen jarraitzea


8.2- «2023-2027 Auzokide Plana»ren bitartez auzoak etengabe hobetzeko apustua egiten jarraitzea

8.3- Auzo guztietan wifi sarea ezartzen jarraitzea

8.4- Haurrentzako jolas-gune estaliak ugaritzea


8.5- Komunitateko Udaltzaingoa, hurbilekoa, garatzea auzoetan

8.6- Herritarren segurtasuna hobetzeko bideozaintzarako kamera gehiago jartzea




8- AUZOEN GARAPENA

JARDUKETA	JARDUKETAREN DESKRIBAPENA
8.1- Oinezkoentzako espazioak eta «auzo-bihotzak» sortzen jarraitzea	<p>«Auzo-bihotzak» espazioa hiriaren proiektu estrategiko gisa planteatu zen, Bilboko auzoen garapen orekatua hobetzeko. Auzo horiek berroneratzeko hainbat jarduketa egiten ari dira, bizitza soziala, kulturala eta ekonomikoa sustatzeko espazioak berreskuratzeko eta garatzeko bertan, haien nortasuna indartzeko eta auzoen eta erdigunearen sarean txertatzeko.</p> <p>Aurreikusi da agintaldi honetan espaloiak zabaltzea Madariaga etorbidean, Benidorm kalean, Ibarrekolanda kalean Txurdinagako Eskola Alemanaren ondoan, Santutxuko Kalamua kalean, Iturribide kalean, Eretza Mendiaren kalean, Rodríguez Arias kalean eta haren perpendikularretako batzuetan, eta María Díaz Harokoaren kalean. Halaber, Orreagako Guduaren kalea eta Uribarriko San Agustin estrataren zati bat oinezkoentzat egingo da.</p>
8.2- «2023-2027 Auzokide Plana»ren bitartez auzoak etengabe hobetzeko apustua egiten jarraitzea	<p>Plan hau garatzeko konpromisoari eutsi zaio; izan ere, aukera ematen du Barruti Kontseilu bakoitzean auzoentzako garrantzitsuak diren proiektuak eztabaidatzeko eta lehenesteko, eta biztanleak gune bakoitzean egin beharreko jarduketak definitzean murgiltzeko.</p>
8.3- Auzo guztietan wifi sarea ezartzen jarraitzea	<p>Bilbao wifi haririk gabeko udal-sare bat da, Internetarako konexio-zerbitzu librea, unibertsala eta doakoa ematen duena. Gaur egun, 200 sarbide-puntu baino gehiago ditu, eta presente dago udal-eraikin guztietan, baita bestelako batzuetan ere, esaterako, ospitaleetan, tranbian, metroan, kirol-instalazioetan eta museoetan.</p> <p>Datozen urteetan apurka zabaltzen jarraituko dugu.</p>
8.4- Haurrentzako jolas-gune estaliak ugaritzea	<p>Auzokide Planak eztabaidatzean eta onestean lehenetsitako jolas-guneez gain, aurreikusi da Uribarriko Panerako jolas-gunea estaltzea.</p>



8- AUZOEN GARAPENA

JARDUKETA	JARDUKETAREN DESKRIBAPENA
8.5- Komunitateko Udaltzaingoa, hurbilekoa, garatzea auzoetan	<p>Mailaka-mailaka udaltzaingo-eredu horri helduko zaio, printzipio hauetan oinarrituta:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Zerbitzuan oinarritzea, bereziki prebentzio-lanetan. ▪ Komunitatearekiko interakzioa eta, bereziki, hiri-segurtasunaren ikuspuntutik zaugarrien diren kolektiboekikoa: emakumeak, haurrak, adinekoak, saltoki txikiak eta abar. ▪ Partaidetzarako eta entzute aktiborako espazioak sortzea.
8.6- Herritarren segurtasuna hobetzeko bideozaintzarako kamera gehiago jartzea	<p>Dagoeneko ezarritako kameraren eraginkortasuna berrikusiko da, bai egonkorrena bai Aste Nagusirako eta Santo Tomaserako berariaz jarri zirena ere.</p> <p>Gainera, kamerak jarriko dira Mallona Bidarrietan eta Otxarkoagan.</p>



9- BILBO EUSKALDUNA



ZEIN GJH-RI EGITEN DIO EKARPENA?




ZEIN BALIO INDARTZEN DITU?

Nortasuna

JARDUKETAK

- 9.1- Euskararen Aholku Batzordea indartzea
- 9.2- Euskarazko kultur-adierazpenak sustatzea (antzerkia, musika, literatura eta abar)
- 9.3- Hiriko askotariko dinamika sozialetan euskararen erabilera sustatzeko kanpainak eta programak, adibidez, merkataritza-eremuan, ostalaritzan, kirolean eta denbora librean
- 9.4- Bilboko «Euskararen VII. Plana» garatzea



9- BILBO EUSKALDUNA

JARDUKETA	JARDUKETAREN DESKRIBAPENA
9.1- Euskararen Aholku Batzordea indartzea	<p>Batzorde honen xedea da hirian euskararen erabilera sustatzeko proiektuak eta normalizazioko aurrerakuntzak bideratzea. Bi aldiz biltzen da urtean, eta, bertan, askotariko instituzio publikoek, pribatuek eta eragile sozialek euskararekin lotutako gaiak aztertzen dituzte, eta askotariko eragileek elkarrekin aritzearen garrantzia islatzen dute.</p> <p>Datozen urteetarako helburuak izango dira batzordearen alde ebaluatzailea eta estrategikoa handitzea eta balio handiagoa aitortzea bere zereginari, Bilboko herritarrei egindako lanen eta lortutako eraginaren berri emanez.</p>
9.2- Euskarazko kultur-adierazpenak sustatzea (antzerkia, musika, literatura eta abar)	<p>Jarduketa honen helburua izango da euskarazko jarduerak sustatzea hiriko kultur programazioan, bereziki antzerkian, musikan eta literaturan. Bertsolaritza indartzeko lan-ildo berriazko bat ere garatuko da.</p>
9.3- Hiriko askotariko dinamika sozialetan euskararen erabilera sustatzeko kanpainak eta programak, adibidez, merkataritza-eremuan, ostalaritzan, kirolean eta denbora librean	<p>Jarduketa horretan hainbat ekimen bilduko dira, esaterako:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ «Bilbon euskaraz», euskararen erabilera soziala handitzeko Bilbon, eta hirian garatutako kultura, aisialdia eta ekitaldiak euskararekin lotzeko. ▪ «Biribilko» programa, saltokietan eta ostalaritzan euskararen erabilera aktibatzeakoa. ▪ Herritarren ahozko hizkuntz ohiturak aldatzeko jarduera-programa, euskarari lotutako eragile sozialen eta elkarten elkarlaguntzatik eta koordinaziotik egina. Jardueren artean egongo dira elkarrizketak, hitzaldiak eta prestakuntza-ikastaroak sustatzeko espazioak, bai aurrez aurrekoak bai digitalak. ▪ Haurrei eta gazteei bideratutako ikasketak, proiektuak eta ekimenak, eskolaz kanpoko jarduerak kirolaren eta aisiaren inguruan euskalduntzeko.
9.4- Bilboko «Euskararen VII. Plana» garatzea	<p>Plan berri honen bitartez euskararen erabilera finkatu nahi da, bai herritarrei emandako zerbitzuetan bai udalaren barneko lanen kudeaketan. Azken xedea da herritarren hizkuntz eskubideak bermatzea udalarekin ari direnean, baita, ordea, euskara gero eta gehiago izatea instituzioaren barneko lanerako hizkuntza.</p> <p>Plan berrian udalaren alor eta entitate guztietara egokitutako gaikuntza- eta prestakuntza-ekintzak egitea egongo da jasota.</p>



10- UDAL HURBIL, MODERNO ETA ERAGINKORRA



ZEIN GJH-RI EGITEN DIO EKARPENA?



ZEIN BALIO INDARTZEN DITU?

Emakumeen eta gizonen berdintasuna

Konpromisoa

Erantzukidetasuna

Dibertsitatea eta inklusioa


Konfiantza

Partaidetza

Zintzotasuna


JARDUKETAK

- 10.1- Gardentasun Zerbitzuen Agiria egitea
- 10.2- Partaidetza eta «Partaidetzazko Aurrekontuak» egiteari lotutako zabalkunde-ekintzak indartzea
- 10.3- Herritarren partaidetza udal-planak eta -programak egitean eta udal-zerbitzuak diseinatzeko eta birdiseinatzeko herritarren laborategietako esperientziak
- 10.4- Bilboko Hiri Kontseiluari protagonismo handiagoa ematea
- 10.5- «Bilboko Eraldaketa Digitalerako Agenda 2030» ezartzea
- 10.6- Udalaren Administrazio Elektronikoko Plataforma berria
- 10.7- «Herritarrentzako Zibersegurtasuna» programa garatzea
- 10.8- Barrutietako Udaltegiak eguneratzea eta hobetzea
- 10.9- Udal-araudiaren eta Bilboko herritarrentzako oso interesgarriak diren bestelako dokumentuen irakurketa errazeko bertsioak egiten jarraitzea
- 10.10- Kontratazio Berdeko Klausulen eta Klausula Sozialen Katalogoa handitzea
- 10.11- «Bilboko Nazioartekotze Estrategia» ezartzea, nazioartean bizitzeko, lan egiteko eta bisitatzeko hiri erakargarriaren irudia eraikitzen jarraitzeko




10- UDAL HURBIL, MODERNO ETA ERAGINKORRA

JARDUKETA	JARDUKETAREN DESKRIBAPENA
10.1- Gardentasun Zerbitzuen Agiria egitea	<p>Zerbitzuen agiriak kalitatea, komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna hobetzeko tresnak dira. Herritarrei haien interesekoak izan daitezkeen zerbitzuen eta prestazioen berri emateko eta orientabideak emateko balio dute, erraz eta labur, baita zerbitzua ematean udalak bere gain hartzen dituen konpromisoak eta erantzukizunak jakinarazteko ere.</p> <p>Zehazki, Gardentasun Zerbitzuen Agiri bat egin eta egiaztatu nahi da, Bilboko Udalaren Gardentasun Atariarekin lotutako kalitate-konpromisoak zehazteko, zabaltzeko eta ebaluatzeko, herritarren eskariei, beharrei eta itxaropenei erantzutea lortu ahal izateko, indar berezia eginda publizitate aktiboan eta informazio publikorako irispidea izateko eskubidearen erabileran.</p>
10.2- Partaidetza eta «Partaidetzako Aurrekontuak» egiteari lotutako zabalkunde-ekintzak indartzea	<p>Partaidetzako Aurrekontuen lehen edizioa 2016an egin zen. Ordutik, ekimen hori mailaka garatu da, eta 2021ean herritarrek proiektuak lehenesteko zuzeneko bozketa ezarri zen.</p> <p>Proiektu finkatua da, eta datozen urteetan honako hobekuntza-ekintzak egingo dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Haurrak txertatzea prozesuan. ▪ Gazteen partaidetza handitzeko behar diren ekintzak egitea. ▪ Zabalpen-ekintzak indartzea, hala prozesuari lotutakoak nola herritarrek lehenetsitako proiektuak egikaritzeari lotutakoak.
10.3- Herritarren partaidetza udal-planak eta -programak egitean eta udal-zerbitzuak diseinatzeko eta birdiseinatzeko herritarren laborategietako esperientziak	<p>Udal-planak eta -programak egitean eta ebaluatzean herritarren partaidetza indartzeko, honako ekintza hauek egingo dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Teknologia eta metodologia berriak txertatzea, herritarren partaidetza erraztuko duena. ▪ Barrutiko Kontseiluak indartzea udalaren harremanetarako eta kontu emateko lehentasunezko espazio gisa. ▪ Sektoreko Kontseiluak indartzea hiriko eragileen eta erakundeen partaidetza-organo gisa. ▪ «Auzokide plana»ren bitartez auzoak etengabe hobetzeko apustua mantentzea, funtzionatzeko protokolo berria ezarri eta zabalduz. ▪ Herritarren Partaidetza Batzordeen lana indartzea. ▪ Herritarren Partaidetzaren udal-ataria indartzea.




10- UDAL HURBIL, MODERNO ETA ERAGINKORRA

JARDUKETA	JARDUKETAREN DESKRIBAPENA
10.4- Bilboko Hiri Kontseiluari protagonismo handiagoa ematea	<p>Protagonismo handiagoa emango zaio Bilboko Hiri Kontseiluari, ekintza haien bidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Kontseilurako lan-metodologia berria diseinatzea eta ezartzea. ▪ Saio zehatzak egitea Kontseiluaren partaidetza aktiboa bideratzeko Bilborako erronka edo proiektu estrategikoak diseinatzeko prozesuan,
10.5- «Bilboko Eraldaketa Digitalerako Agenda 2030» ezartzea	<p>«Bilboko Eraldaketa Digitalerako Agenda»ren helburua da «hiri adimenduna, erakargarria eta bizitzeko, lan egiteko eta sortzeko balioetan oinarrituta egotea», hau da, hiri adimenduna izatea, zerbitzu aurreratuen zentro bat, eta sareko berrikuntza teknologikoaren erreferentziatzeko poloa, ezagutza eta talentua sortzen eta erakartzen duena, balioetan oinarritutako irtenbideak esperimentatzeko espazioa, eta liderra herritarrentzako bizi-kalitate inklusibo eta jasangarrian.</p> <p>Helburu hori 5 zereginak/helburuak, 15 ildo estrategikoak eta agendan jasotako 30 proiektu estrategiko eta berezi baino gehiagoren bidez lortuko da. Nabarmendu beharreko proiektuen artean, azpimarratu beharra dago datuak gobernatzeko plataforma teknologiko bat ezarri dela, proiektu analitikoaren bideragarritasunaren azterlana egiteko prozedura bat definitu dela, biltegiatzea handitu dela eta zerbitzariak berritu direla, eta zibersegurtasuneko proiektuak egin direla. Halaber, «Modernizazio Teknologikoaren Eremuko Udalaren Egoeraren Azterlana» eta «Udalaren Modernizazio Plan Estrategikoa 2030» egingo dira.</p>
10.6- Udalaren Administrazio Elektronikoko Plataforma berria	<p>Administrazio elektronikoko plataforma berri abian jartzeak aldaketa handia ekarriko du, bai ukitutako pertsona kopuruari bai funtzionamenduari dagokionez (prozesu berriak, esaterako, egoitzan jakinaraztea, eta intuitiboagoak egitea).</p> <p>Proiektuan sartuta egongo dira udal langileei eta herritarrei, enpresei eta elkartei bideratutako hobekuntza teknologikoak eta prestakuntza-ekintzak.</p>
10.7- «Herritarrentzako Zibersegurtasuna» programa garatzea	<p>Proiektuak zibersegurtasuneko mekanismoak sortuko ditu udal wifi sarean, herritarren gailuetan edozein malware identifikatzeko eta blokeatzeko, hari dituen arriskuen berri eman ahal izateko, eta, gainera, prestakuntza-elementuak emango dizkio herritar guztiei, erresilientzia digitala handitzeko helburuarekin online delitu ohikoenen berri emateko.</p>




10- UDAL HURBIL, MODERNO ETA ERAGINKORRA

JARDUKETA	JARDUKETAREN DESKRIBAPENA
10.8- Barrutietako Udaltegiak eguneratzea eta hobetzea	<p>Barrutietako Udaltegiak eguneratzeko eta hobetzeko ekintzak egingo dira, zentro horietako azpiegiturak eta instalazioak berrikusteko eta hobetzekoak. Egin beharreko hobekuntzak dira birgaitzeak, egokitzeak, diseinua eta abiaraztea, eta honako hauek dira nabarmenenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Miribilla/San Adrianen udal-ekipamendu berri baten diseinu funtzionala eta haren kokapena bilatzea. ▪ Zorrotzako udaltegi berria abian jartzea. ▪ Udaltegien irisgarritasuna berrikustea.
10.9- Udal-araudiaren eta Bilboko herritarrentzako oso interesgarriak diren bestelako dokumentuen irakurketa errazeko bertsioak egiten jarraitzea	<p>2017tik, Bilboko Udalak bi plan egin ditu herritarrek informaziorako, komunikaziorako eta arretarako irispide hobe izan dezaten. Bertsio irakurterrazak egiten jarraitzeko, «Irakurketa Errazeko eta Arreta Irisgarriko Plana 2024-2017» arri zen abian, irakurketa erraza aplikatzen jarraitzeko Bilboko herritarrentzako interes handiko dokumentazioan, eta udal-arreta irisgarriko eredia hedatzeko. Helburu hori betetzen lagundu egingo da, herritarren aldeko kontraste- eta baliozkotze-prozesu baten bidez, eta eremu horretan udaleko langileak prestatzeko eta sentsibilizatzeko prozesu baten bitartez.</p>
10.10- Kontratazio Berdeko Klausulen eta Klausula Sozialen Katalogoa handitzea	<p>Honela sustatuko da gizartearekin arduratsua den kontratazioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Egungo egoeraren diagnostia egitea klausula horien aplikazio-maila eta lortutako eragina balioesteko. ▪ Udal alorrekin eta erakundeekin baterako lana, ESG (ingurumena, gizartea eta gobernantza) irizpide berriak txertatzeko Bilboko Udalaren lizitazioko eta inbertsio publikoko agiri eta prozeduretan. ▪ «Bilbao Jasangarria: Agenda 2030 eta GJH» ekintza-plana ezartzeko lantalde transbertsalaren barruan mahai espezifikoak eratzeko.



10- UDAL HURBIL, MODERNO ETA ERAGINKORRA

JARDUKETA	JARDUKETAREN DESKRIBAPENA
<p>10.11- «Bilboko Nazioartekotze Estrategia» ezartzea, nazioartean bizitzeko, lan egiteko eta bisitatzeko hiri erakargarriaren irudia eraikitzen jarraitzeko</p>	<p>«Bilboko Nazioartekotze Estrategia» ezarri behar da, honako jarduketa hauen bidez:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Hiriaren alderdi ekonomikoarekin lotutako jarduerak beren-beregi indartzea, Bilboko enpresen nazioarteko posizionamendua sustatzearekin batera, aukera globalak sortuz Bilboko hiriarentzat, enpresentzat eta herritarrentzat. ▪ Definitutako eremu estrategikoetan hiriaren aitortza indartzea, kanpoan aukerak sortzeko. Bilboko hiriaren irudi erakargarria finkatzea nazioarteko komunitatean. ▪ Lankidetzak-akordioak eta hitzarmenak garatzea hiriekin, nazioartean, nazioarteko ordezkartzeekin, nazioarteko errekonozimenduak lortzeko lan eginez. ▪ Bilbok nazioarteko sareetan duen presentzia finkatzea eta mantentzea. ▪ Bilbora bisitan datozen misioak baliatzea, bereziki hiriko enpresentzako aukerei dagokienez.





JARRAIPENA, EBALUAZIOA ETA KONTU EMATEA



AGINTALDI PLAN HONEK INDARTU EGITEN DU BILBOKO UDALAREN GOBERNU IREKIAREKIKO KONPROMISOA

Hauekin du konpromisoa, hain zuzen:

Herritarren partaidetza

Gardentasuna

Kontu ematea


Horregatik, egin beharreko **lehentasunezko proiektuak definitzea bezain garrantzitsua da haien jarraipenaren, ebaluazioaren eta kontu ematearen sistematika garbia eta gardena ezartzea. Herritarren eta lurraldeko eragile gakoen **egiazko partaidetza** posible egingo duten tresnak eta espazioak eskaintzen dituzte prozesu guztian zehar.**

Plana zabaldutakoan hasiko da udal-alorrek eta -erakundeek **lehentasunezko jarduketak sustatzeko eta haien jarraipena egiteko lana.**

Urteroko jarraipen-txostenak egingo dira, eta haietan ebaluatuko da planaren jarduketaren garapenaren aurrerapen-maila. Jarraipen-txosten horiek hizkera soilean eta ulergarrian idatziko dira, eta **www.bilbao.eus** webgunean argitaratuko-

Gainera, kontu-emate hori **topaketekin eta bilerekin** osatuko da; haietan, alkateak eta gobernu-taldeko gainerako kideek beren kudeaketa azalduko diete herritarrei.

Horren guztiaren xedea da **Bilboko herritarrek erraz ebaluatu ahal izatea agintaldiko plan honetan ezarritako konpromisoen betetze-maila.**





Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

BILBAO HOBETZEN
MEJORANDO BILBAO

AGINTALDI
PLANA
2023-2027

